


¡Por un nuevo modelo social! Borroka da bidea!

2011KO MAIATZAK I

**HAU
LAPURRETA
BAT DA**

**EUTSI
BORROKARI**



la hiru urte krisi ekonomikoa 'ofizialki' deklaratu egin zutenetik. Hasierako ideia berresten ari da, hau da, krisi hau lapurreta bat dela. Lehenik eta behin, finantza sistema (espekulazioa) zulotik ateratzeko diru publikoaren kopurutzarrak transferitu zituzten. Ondoren enpleguaren suntsiketa eman zen eta langabezia-tasaren kontrolrik gabeko gorakada: aurretiko lan prekarietatearen parte bat langabezia bihurtu zen eta gainontzeko enpleguaren baldintzak, soldatak barne, txartu egin ziren; 'konpontzeko', desfavoratuenei laguntza publikoak murriztea erabaki zuten; eta guzti honen eskutik pobrezia areagotu egin zen, etxebizitzetatik botatzeak ematen hasi ziren... Eragin nagusien harandian, badira biztanleriaren sektoreak biziki kaltetuak izan direnak: pertsona immigranteak, emakume langileak eta gaztedia.

Azken 12 hilabete suntsigarri

Gutxiengo indartsu batek (nazioarteko finantza instituzioak, ugazaberiaren goi-karguak, banku handiak...) klase politikoa eta administrazio publiko gehienak euren zerbitzura jarri ditu, hauek tutik esan ez dutelarik. Hau dela-eta, Estatuko Gobernuak aurrera eginaz eta erkideetako gobernuen laguntzaz (bai Nafarroakoa bai EHAEkoa), benetako gurutzada neoliberala jasaten ari gara. Hauek diote mugatua eta biztanleria osoan zabaldua ez dagoen ongizate estatuaren parte handi baten espolazioa onartu behar dugula, bestela, krisiak ez duela soluziobiderik, eta enplegu, soldata, etxebizitza, eta abar galtzen jarraituko ditugula.

12 hilabete hauetan 2010eko maiatzeko dekretutzarra pairatu egin dugu, ekaineko lan erreforma, otsaileko pentsioen murrizketa eta duela gutxiago hitzarmen kolektiboaren erreforma. Gure historiaren zehar (joan den medeko 70. hamarkadako eta 80. hamarkadako lehen urteetako krisia eta birmoldaketa industrial, 90. hamarkadako krisia...) ez dugu gure eskubideen honelako arpilatezerik eza-gutu. Eraso hau historikoa da; ez badugu erantzuten, lan eta gizarte eskubideen gainbehera emango da eta datozen belaunalak euren guraso eta aitona-amonak baino gaizkiago biziko dira.

Horma eraitsi

Tamainako tragediaren aurrean, erantzun sozialak zeharo desberdinak dira. Alde batetik, CCOO eta UGT-ren lankidetzak, zeinak elkarrizketa eta itun sozialaren korralerako itzulera azkarraren ostean, euren sinadurekin pentsioen murrizketa zorrotza bermatu duten. Bestaldetik, gure herrian, hainbat gizarte mugimenduen laguntzarekin, LAB, ELA, ESK, STEE/EILAS, CGT, CNT, EHNE, HIRU etabarren eskutik dirauen konfrontazio eta borroka sindikalismoa; 2009ko maiatzak 21, 2010eko ekainak 29 eta CCOO eta UGT zerbait egingo zutenaren keinua egin zuten irailak 29ko greba orokorrek, egin diren hamaika mobilizazioek diruaren botere eta honek inplementatzen dituen politika neoliberal basatiekiko erantzun zabalari bidea eman diote.

Egun arte borroka hau ez da nahikoa izan nahi zuen guztia bertan behera botatzeko; ekin eta ekin behar diogu. Hala ere, lehen emaitza izan dugu: botereen gogoz bestera eta borrokaren eraginak gutxiagotzen ahalegindu diren hedabideak barne, argi eta garbi geratu da sistemaren esanetara den sindikalismo instituzionalaz haraindi, erasoan kontrako erantzun zabalak eratu daitezkeela, badelako sindikalismoa egiteko beste era bat eta erakundeak daudelako berau suspertzeko prest. Gai izan gara hormako adreilu batzuk botatzeko eta honela hauteman mundu justuago baten etorkizun hobeagoa; jarrai dezagun erabat bota arte.

KAPITALISMOA GAINDITU: MUNDU JUSTUAGO BATEN ALDE

Egoera honetan, alter-mundista mugimendua parafraseatuz, baieztatu behar da beste mundu bat posible ez ezik, beharrezkoa ere badela, biziki beharrezkoa.

Beharrezko eta premiazko da (posible izateaz gain) gosetearekin, gerlekin, emakumeen trafikoarekin, armagintzarekin, planetaren suntsiketa prozesuarekin, haur-lanarekin, langabeziarekin, lan prekarietatearekin eta abarrekin amaitzea. Eta gizarte justizia egoerara heldu, maila unibertsean zein herri mailan, non inor ez dadin bestea baino gehiago izan, non inor ez dadin inoren bizkarretik bizi, eta beharrezkoak baino ez diren baliabideak erabiliko diren.

Funtsezko irizpideak eta hartu beharreko neurriak

Egoera horretara heltzeko funtsezko hiru baldintza bete behar dira: ondasunaren banaketa, lanaren banaketa (soldatapekoa, pertsonen arreta eta etxeko lanak) eta kontutan izan behar dugu bere mugak dituen ekosistema batean bizi garela. Ingurumen-mugei buruz, gogoratu behar dugu gure herrietan oinatz ekologikoa soberan gainditzen dela; honek, era sozialeko neurriak hartzea eraman beharko gintuzke (elikagai-subiranotasuna, mugak garraioetan, bitarteko kolektiboen suspertzea, nekazaritza ekologikoa...) eta bakoitzak kontsumo-pautak birplanteatu beharko litzuzke. Ondasun eta lanaren banaketa herri aberats eta pobreen artean egin beharrekoak dira, eta herri bakoitzeko pertsonen artean, lanaren banaketa sexualaren desagertzearen ezinbestekotasuna azpimarratuz.

Lehen alderdirako, herri pobretuei kanpo zorraren barkamena bezalako neurriak hartu beharko lirateke, finantza transakzio guztiei zerga-sistemaren bat ezarri beharko litzaieke (Tobin tasa adibidez), herri horiei urtetan lapurtu dizkiogun baliabideak itzuli (hasteko, aurrekontuen %0,7a indarrean jarritz...).

Bigarren alderdirako, non zuzenki obra dezakegun, langileriaren lema klasikoak berreskuratu behar ditugu: 35 orduko lanaldia (egun, mugimendu batek dio 21 orduko lanaldia astean nahikoa

litzatekeela), aparteko ordurik ez, prestakuntza lanaldiaren barruan... eta irabazitako denbora hori lanpostuak bihurtu. Aldi berean, hainbat produkzio kolokan jarri beharko lirateke (armak, garraio pribatuak, transgenikoak...) eta zerbitzu publiko kolektibo gehiago eta hobeagoak aldarrikatu. Beste zerga-sistema bat exijitu beharko litzateke (gehiago duenak gehiago ordain dezala), bankuak eta indar-enpresa handiak nazionalizatu eta herri kontrolpean jarri...

Kapitalismoa gainditu

Sistema kapitalistak ez du bere gain guzti hau hartu. Neoliberalismoari kritika zorrotza egin behar diogu, azken 20-30 urtetan kapitalismoaren aurpegiari hain zuzen; desberdintasunak areagotu baititu eta ingurumen-arazoak larriak eragin; baina gakoa sistema ekonomikoaren behin-behinekotasun aspektuaz haraindi dago: kapitalismoak berak garbi eta argi utzi du gutxiengo batzuen ongizatea, gutxiengo zabalak baina gutxiengoak, biztanleen gehiengo baten esplotazioaren bidez lortzen dela, gu bizi garen bezalako herri aberatsen esplotazioaz eta batez ere herri pobretuen esplotazioaz.

Beste sistema sozio-ekonomiko bat diseinatu behar da, eskubide eta bete-beharren berdintasunean oinarrituta, ingurumen-mugekiko errespetuan, eta bere alde borrokatu. Edo hobeto oraindik, biak batera egiten joan. Zeregin sindikalaren egunerokoak helburu horiek ezin ditu alde batera utzi, eta pixkanaka-pixkanaka lortzeko aritu behar gara.

Hormaren beste aldean mundu hobeago, posible eta beharrezko bat ikustaten da. Bere alde borroka dezagun!